



## ETXALARKO UDALA

Andutzeta, 15 - 2. solairua - 31760 ETXALAR (Nafarroa)  
Tel.: 948-635005 - Fax: 948-635232  
e-posta: udala@etxalar.eus - Web: www.etxalar.eus

### ETXALARKO IGERILEKUETAN SOROSLE LANETAN ARITZEKO DEIALDIA

## 2026ko DENBORALDIA

1.- Etxalarko Udalak bi sorosle kontratatu nahi ditu igerilekuen 2026ko denboraldirako, sorosle eta bertze lan batzuk egiteko.

2.- Izangaiek bete behar dituzten baldintzak hauexek dira:

- Sorosle lanetan aritzeko titulua (urriaren 24ko 86/2018 Foru Dekretuan eta urriaren 20ko 255E/2021 Foru Aginduan ezarritakoarekin bat eginik).

	<b>2026ko DENBORALDIA</b>
PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK	Sorospena ur-instalazioetan
	Sorospena ur-espazio naturaletan
	Igeriketa-jarduerak
	--
KIROL IRAKASKUNTZAK	Salbamendu eta Sorospeneko kirol-teknikaria
	Salbamendu eta Sorospeneko goi-mailako kirol-teknikaria
LANBIDE HEZIKETA	Natur inguruneko eta aisialdiko gidaritzako teknikaria
	Gorputz- eta kirol-jardueren animazioko goi-mailako teknikaria
	Egokitze Fisikoko goi-mailako teknikaria
	Irakaskuntza eta animazio soziokiroleko goi-mailako teknikaria
BERTZEAK	Maiatzaren 19ko 123/2003 Foru Dekretuan eskatzen zen prestakuntza hori 2018ko abenduaren 16a baino lehen lortu behar zena

- Euskara menperatzea.
- Egin beharreko lanetarako gaitasuna izatea.
- Administrazio publikoaren edozein lanpostutarako ezgaiturik ez egotea eta hartatik berezia ez izatea.

3.- Deialdian parte hartzeko eskabideak udaleko bandoan adierazitako epean aurkeztuko dira udal idazkaritzan, agiri hauek erantsirik:

1. Curriculumama
2. Lan eskarmentua
3. Sorosle titulua (aurreko oinarrian azaldutakoren bat)
4. DESA titulua edo ziurtagiria (desfibriladorea erabiltzeari buruzkoa)
5. Erantzunkizunpeko adierazpena (eredua behean)

4.- Hilabeteko lansari garbia **1.313,90 eurokoa** izanen da. Kontratatuei hileroko ordainsarrietan legezko atxikipenak eginen zaizkie. Gizarte Segurantzako Araubide orokorraren arabera, dagokien kotizazioa ordainduko da.

Esleipendunak **100,00 euroko fidantza** jarriko du kontratua sinatzean; hura bukatzean itzuliko zaio, betiere kontratuak iraun duen bitartean ez bada gora beherarik izan; halaber, kontratua esleitu ondotik, ekainaren 10etik aitzinera uko egiten bazaio, fidantza ez da itzuliko.

5.- Lan kontratuaren iraupena:

- **Hasiara: 2026ko ekainaren 19an** (igerilekuak irekiko dira ekainaren 20an).
- **Bukaera: 2026ko abuztuaren 31n** (igerilekuak itxiko dira abuztuaren 30ean).

Igerilekuen denboraldian egin beharreko ordu-kopurua kontuan harturik, bi sorosleen artean adostuko da bakoitzak egin beharreko lanaldia (txandak, egunak, orduak, etab.), hori bai, igerilekuetan beti sorosle bat dagoela bermaturik.

6.- Egin beharreko lanak hauexek dira:

- Instalazioak goizeko 11:00etatik arratsaldeko 20:00ak arte irekiak edukitzea, jai egunak barne, sorosle lanetan aritzearren.
- Uraren inguruko betebeharrak betetzea, horien artean hauexek: uraren kalitatea zaindu, kontrol ofizialeko liburuan egunero egindako analisisien emaitzak jaso, uraren tenperatura hartu eta NAVIA aplikazioan datuak sartu, indarrean den araudiaren arabera.
- Udal igerilekuak ireki aitzinetik kontratatuek instalazioak behar bezala jarri behar dituzte, eta denboraldia bukatutakoan erabiltzeko modu egokian utzi.
- Sorosleek hala nahi izanez gero, igeriketa ikastaroak eman ahalko dituzte. Kasu horietan, ikastaroen prezioa sorosleek erabakiko dute, eta irabaziak beraientzat izanen dira.

Aipatutako lanei dagokienez, Udalak edo honen ordezkariak ezartzen dituen jarraibideak beti kontutan hartuko dira.

Igerilekuen funtzionamenduari buruzko lege-araudia bete behar dute; osasun egoera dela eta, aldaketak egin behar badira, betebeharrak egokituko dira neurri berriei ere.

7.- Indarrean den legerian ezarritako kasuez gain, Udalak kontratua desegiten ahal du, bere ustez hitzartutako baldintzak betetzen ez badira edo zerbitzua txarra bada, eta kontratatuek ez dute inolako kalteordainetarako eskubiderik izanen.

8.- Udalak igerilekua erabili ahalko du iruditzen zaion edozein jardueratarako, hala bada.

9.- Baldintza-plegu honek sor dezakeen edozein zalantza Etxalarko Udalak ebatziko du.

Etxalarren, 2026ko apirilaren 27an.

Jarduneko alkatea,

